



Ondorengo adierazpena Osoko Bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadila proposatzen dut, horrela adostu baita Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluaren 2019/11/18ko bileran.

### **AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

## **“EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA”**

### ***INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN ERREPARAZIO-EKINTZAK TOKI MAILAN***

Gaurko eguna, azaroak 25, *emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Eguna* dugu, nazioarteko eguna, gainera. Gaur eta hemen nabarmendu behar dugu indarkeria mota hau egiturazko zerbait dela; gaur eta hemen gure konpromisoa berretsi nahi dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko jendartea eraikitzeko. Era berean, azpimarratu behar dugu, ostera ere, esku-hartzea arlo guztietan dela beharrezkoa: **prebentzio-lana egiteko, biolentziari erreparatzeko, arreta eta babes emateko, koordinazioan eta justizian**; eta arreta berezia jarri behar diegu biktimei eta bizirik atera diren emakumei dagokien **erreparazioa izan dezaten**.

Biktimen erreparazioaren printzipioak berekin dakar martxan jartzea beharrezkoak diren ekintzak biktimak eskubide-urraketa bizi aurreko egoerara buelta daitezen. Hau da, euren bizi-baldintzak funtsean hobetu behar ditugu, eta hori etorriko da nahita nahi ez urratu zaizkien eskubideak berreskuratzetik eta eragindako mina konpontzetik. Eta horrekin batera, ahalduntze-prozesua bultzatu behar da, indarkeria-egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartzeko nahitaezkoa delako.

Indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik gertuen dagoen erakundea Udala denez gero, Ondarroako Udalak bere gain hartzen du arlo honetan duen ardura. Udalaren konpromisoa da politikariek eta teknikariek koordinatuta jardutea erreparazioa gauzatzeko, izan ere, toki mailan jardutea funtsezkoa baita laguntzeko komunitateko bizitza berrezartzen eta biktimei erreparazio publiko eta soziala ematen, bai indarkeria matxistaren biktimak izan diren horien bai indarkeria horretatik bizirik atera diren emakumeen hurre-hurreko inguru baten.

Ondarroako Udalak konpromisoa hartzen du berraztertze TRATU TXARREN ETA SEXU INDARKERIA KASUETARAKO DAUKAN PROTOKOLOA, EMAKUMEEI EGIN BEHARREKO HARRERA HOBETZEKO. Koordinazio protokolo horretan ERREKUPERAZIO ESKUBIDEAREN dimentsio guztiak bilduko ditu eta, besteak beste, honako hauek kontuan hartu:



- Biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jartzea, euren beharrizan eta eskariei entzunez eta arreta emanez.
- Langile espezializatu eta kualifikatuak edukitzea, erreparazioaren ikusmoldetik, ikuspegi feministarekin.
- Erreparaziorako eta ahalduntzeko esku-hartze prozesu guztietan, kudeaketa eta azkartasuna bermatzeko lan egitea.
- Tartean sartutako erakunde guztiekin koordinazioa bultzatzea
- Talde feministekin eta tokiko emakumeen elkarteekin modu estuan lankidetzan aritzea.

2019/11/22

Izp.: Irina Alkorta Bedialauneta  
Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluburua